

PROPUESTA DE ACUERDO AL CONSEJO SOCIAL PARA LA MODIFICACIÓN DE LA SUBVENCIÓN NOMINATIVA A LA FUNDACIÓN INSTITUTO DE INVESTIGACIÓN SANITARIA DE NAVARRA "IDISNA" CON EL FIN DE ABONAR LOS IMPORTES PENDIENTES CORRESPONDIENTES A LOS AÑOS 2018 Y 2019

GIZARTE KONTSEILUARENTZAKO ERABAKI-PROPOSAMENA, "IDISNA NAFARROAKO OSASUN IKERKETARAKO INSTITUTUA" FUNDAZIOARENTZAKO DIRULAGUNTZA NOMINATIBOA ALDATZEKO EGINA 2018. ETA 2019. URTEETAKO ZENBATEKOAK ORDAINTZEKO

De conformidad con el Acuerdo del Consejo de Gobierno, en sesión celebrada el 27 de marzo de 2017, se aprueban los Estatutos modificados de la Fundación Instituto de Investigación Sanitaria de Navarra "IdiSNA", lo que implica la incorporación de la Universidad Pública de Navarra a la referida Fundación y se propone al Consejo Social la aprobación de sus aspectos económico-financieros.

Corresponde al Patronato de la Fundación aprobar la aportación de los Centros integrantes de la misma.

En las actas del Patronato de la Fundación IdiSNA, se aprobó la aportación de cada centro para los años 2018 y 2019:

- Acta de la reunión del Patronato de la sesión del 11 de abril de 2018, donde se aprueba la aportación de cada Centro para el año 2018. Se establece una aportación de 38.200 euros para la Universidad Pública de Navarra.
- Acta de la reunión del Patronato de la sesión del 26 de noviembre de 2018, donde se aprueba la aportación de cada Centro para el año 2019. Se establece una aportación de 38.200 euros para la Universidad Pública de Navarra.

Habiéndose dotado insuficientemente la partida para dichas aportaciones en los presupuestos de la Universidad Pública de Navarra de los ejercicios 2018 y 2019 (partida 30.30.00/0340/483.22 - Idisna), existe un importe pendiente de abonar a la Fundación Instituto de Investigación Sanitaria de Navarra "IdiSNA", respecto a ambos ejercicios, que asciende a 8.400,00 euros, siendo las aportaciones efectivamente realizadas:

- Aportación 2018: 30.000,00 euros transferidos a IdiSNA el 20/06/2018
- Aportación 2019: 38.000,00 euros transferidos a IdiSNA el 12/06/2019

Respecto a la partida financiadora, existía un crédito disponible de 9.000 euros en la partida presupuestaria 30.30.00/0340/483.14 - Ayudas a Congresos y otros Eventos, tras la resolución de la Convocatoria de Ayudas para la Organización de Eventos de Carácter Científico de la UPNA para el año 2019 que supuso la liberación de dicho importe inicialmente retenido.

Gobernu Kontseiluak 2017ko martxoaren 27ko bileran hartutako erabakia betetz, onetsi egin dira "IdiSNA Nafarroako Osasun Ikerketarako Institutua" izeneko fundazioaren estatutu aldatu berriak. Horrenbestez, Nafarroako Unibertsitate Publikoa fundazio horretako kide bihurtu da, eta, beraz, Gizarte Kontseiluari proposatzen dio onets ditzala horren ondorio ekonomiko eta finantzarioak.

IdiSNA fundazioaren patronatuak onetsi behar du fundazioaren kide diren zentroyen ekarpena.

IdiSNA fundazioaren akta hauetan jaso eta onetsi zen zentro bakoitzak zenbateko ekarpena egingo zuen 2018an eta 2019an:

- Patronatuaren 2018ko apirilaren 11ko bileraren akta, 2018an zentro bakoitzak egingo duen ekarpena onesten duena. Aktan ezarritakoaren arabera, Nafarroako Unibertsitate Publikoak 38.200 €-ko ekarpena egin behar zuen.
- Patronatuaren 2018ko azaroaren 26ko bileraren akta, 2019an zentro bakoitzak egingo duen ekarpena onesten duena. Aktan ezarritakoaren arabera, Nafarroako Unibertsitate Publikoak 38.200 €-ko ekarpena egin behar zuen.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren 2018ko eta 2019ko ekitaldietako aurrekontuetan, ez zitzaion nahikoa diru esleitu ekarpen horietarako partidari (30.30.00/0340/483.22 - Idisna partida), eta, beraz, falta den zenbatekoa ordaindu behar dio NUPEk "IdiSNA Nafarroako Osasun Ikerketarako Institutua" izeneko fundazioari: 8.400 €. Bi ekitaldietan, zenbateko hauek ordaindu ditu:

- 2018ko ekitaldian: 30.000 €, 2018/06/20an IdiSNARI transferituak.
- 2019ko ekitaldian: 38.000 €, 2019/06/12an IdiSNARI transferituak.

Finantzatzeko partidari dagokionez, 2019an 9.000 €-ko kreditua zegoen erabiltzeko, hau da, "30.30.00/0340/483.14 - Biltzarretarako eta bestelako ekitaldietarako laguntzak" aurrekontu-partidakoa; izan ere, NUPEN 2019an Ekitaldi Zientifikoak antolatzeke Dirulaguntzen Deialdia ebatzi ondoren, libre gelditu da hasieran atxikita zegoen diru kopuru hori.

Los créditos que disminuyen no van a ser necesarios en el ejercicio 2019 y la modificación propuesta no altera el cumplimiento de los objetivos en los Programas presupuestarios afectados.

Ante la existencia de gasto para los que el crédito consignado en la partida presupuestaria 30.30.00/0340/483.22 - Idisna es insuficiente, y existiendo crédito no comprometido en la partida 30.30.00/0340/483.14 - Ayudas a Congresos y otros Eventos, se ha realizado ajuste presupuestario y retención de crédito por importe de 8.400 euros.

Visto el informe de la Sección de Presupuestos (Expediente de Ajuste Presupuestario - AP110/2019).

Visto el informe del Servicio de Intervención.

En su virtud, el Consejo de Gobierno, previa deliberación de sus miembros, a propuesta del Vicerrector de Investigación, en sesión de día 26 de noviembre de 2019, adopta el siguiente,

ACUERDO

Primero.- Proponer al Consejo Social la modificación de la subvención nominativa inicialmente aprobada en el año 2019 para la Fundación Instituto de Investigación Sanitaria de Navarra "IdiSNA" por un incremento de 8.400 euros con el fin de abonar a la misma los importes pendientes correspondientes a los años 2018 y 2019 que se imputarán a la partida 30.30.00/0340/483.22-Idisna.

Segundo.- Comunicar el presente Acuerdo al Consejo Social, al Vicerrector de Investigación, al Director del Servicio de Investigación, a la Sección de Contabilidad, a la Sección de presupuestos y a la Interventora.

2019ko ekitaldian, ez dira beharko kredituak, zeinak txikitzen ari baitira, eta honen bidez proposatzen den aurrekontu-aldaketa ez da oztopo izango eragindako aurrekontu-programen helburuak betetzeko.

Kontuan harturik, batetik, "30.30.00/0340/483.22 - Idisna" aurrekontu-partidari esleitutako kreditua ez dela nahikoa gastu osoa ordaintzeko, eta, bestetik, kredituaren parte bat esleitu gabe dagoela "30.30.00/0340/483.14 - Biltzarretarako eta bestelako ekitaldietarako laguntzak" partidari, doikuntza bat egin da aurrekontuan, eta 8.400 €-ko kreditua atxiki da.

Ikusirik Aurrekontuen Atalak egindako txostena (Aurrekontu doikuntzari buruzko txostena - AP110/2019).

Ikusirik Kontu-hartzailetza Zerbitzuaren txostena.

Bere kideek aurretik eztabaidatu eta gero, Ikerketako errektoreordeak proposaturik, hau da Gobernu Kontseiluak, 2019ko azaroaren 26an egindako bileran, hartu duen

ERABAKIA

Lehenengoa.- Gizarte Kontseiluari proposatzea "Idisna Nafarroako Osasun Ikerketarako Institutua" izeneko fundazioarentzako dirulaguntza nominatiboa alda dezala, hau da, 8.400 € gehitu diezaiola, 2018an eta 2019an ordaindu gabe utzi zituen zenbatekoak ordaintzeko; "30.30.00/0340/483.22-Idisna" partidari egotziko zaio gehigarri hori.

Bigarrena.- Erabaki honen berri ematea Gizarte Kontseiluari, Ikerketako errektoreordeari, Ikerketa Zerbitzuko zuzendariari, Kontabilitate Atalari, Aurrekontuen Atalari eta kontu-hartzaileari.

El Presidente / Kontseiluburua

upna

Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

Ramón Gonzalo García
Rector/Errektorea